



2009KO EKAINAREN 25EKO
OHIKO OSOKO BILKURA

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta bederatziko ekainaren hogeita bostean, iluntzeko zazpietan, Lazkaoko Udal Osoa biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Patxi Albisu Estensoro Alkatearen lehendakaritzapean, ohiko batzaraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Amagoia Naldaiz Mingo, Xanet Barreras Jauregi, M^a Lourdes Garmendia Guerra, Xabier Arrasate Aierbe, Inazio Barandiaran Aldasoro eta Ricardo Crespo Rubio.

Felix Urkola Iriarte, Inazio Estensoro Eskisabel, Juan Manuel Serna Portugal, Ángel Hernández Marzal, Iñaki Saldaña Herrero eta Javier Moreno González de Lara zinegotziak ez dira bertaratu.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkezten dira 2009ko apirilaren 23an egindako ohiko eta maiatzaren 11n egindako ez-ohiko bilkure-tako aktak, idatzita dauden moduan onartzen direlarik.

Jendartetik Igortz Badiolak esaten du beste behin ere esan nahi duela beraiek adierazpenak egiten dituztenean nahiko luketela jasotzea ez bakarrik adierazpenak egiten dituztela baizik eta zeren inguran hitzegiten duten jasotzea baita ere.

II.- ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA.-

Ondoren Alkateak azken Osoko Bilkuratik gaur arte emandako Alkatezako Ebazpe-nen berri ematen du, ebazpen hauen zenbakizko laburpen baten bidez.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditzen da.

III.- 9.1 EREMUKO (HAURRESKOLAREN ONDOAN) HIRIGINTZ HITZARMENAREN ONAR-PENA.-

2008koa abenduaren 15ean Lazkaoko Arau Subsidiarioetako 9.1 Burutze Unitatea-ren Hirigintza Hitzarmanenaren oinarriak jasotzen zituen dokumentua izenpetu zen Alka-tea eta eremu horretako jabe nagusienak direnen artean. Dokumentu horrek Lazkaoko Udal Osoko Bilkura honen baiespena jaso zuen, 2008ko abenduaren 18an egindako bilku-ran hartutako akordio bidez.

Oinarri hauekin hitzarmenaren dokumentua osatu eta 2009ko maiatzaren 14ko al-katearen erabakiz, jendaurreko erakustaldian jarri zen 20 eguneko denboraldian, iragarkia 2009ko maiatzaren 28ko 97 zbk.dun Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zelarik eta Udaletxeko iragarki oholean. Denboraldi horretan ez da inolako alegaziorik aurkeztu.

...///...

Hirigintz hitzarmen honen behin betiko testua ikusi ondoren eta Hirigintza Batzordearen proposamenez, Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, honako akordioak hartzen ditu:

LEHENA.- Arau Subsidiarioetako 9.1 eremuko lurjabeak diren Miguel Mari Arakama Mujika, Jose Mari Aranburu Arakama eta Maria Carmen Aranburu Arakamarekin izenpetzeko hirigintza hitzarmenaren testua, bere espedientean jasota dagoena, onartzea.

BIGARRENA.- Alkatea ahalmentzea berau izenpetzeko.

IV.- HAURTZAINDEGIA ERAIKUNTZA LANEN 6. ETA 7. OBRA EGIAZTAGIRIAK.-

San Prudentzio Ikastetxearen aldamenean eraikitzen ari den Haurtzaindegia eraikuntza lanen obra zuzendaritza daramaten udal arkitektoek lanen 6. eta 7. obra-egiaztagiriak luzatu dituzte. Seigarren obra-egiaztagiriaren zenbatekoa HIRUROGEITA ZAZPI MILA BEDERATZIEHUN ETA LAUROGEITA HAMASEI EURO eta HOGEITA HEMEZORTZI ZENTIMotakoa (67.996,38 €) da eta zazpigarren obra-egiaztagiriaren zenbatekoa berriz EHUN ETA HIRUROGEITA ZORTZI MILA ETA HIRUROGEITA BAT EURO eta LAUROGEITA BI ZENTIMotakoa (168.061,82 €). Lan hauek Miguel Imaz, S.A. enpresa ari da burutzen.

Udal teknikariak obra-egiaztagiri hauek aztertu eta bere oniritzia eman die.

Honen aurrean, Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, Haurtzaindegia eraikuntza lanen seigarren eta zazpigarren obra-egiaztagiriak onartzea erabakitzen du.

V.- ESTALI GABEKO IGERILEKUEN LANEN 1. OBRA EGIAZTAGIRIA.-

Joxemiel Barandiaran udal Kiroldegiaren aldamenean eraikitzen ari diren Estali Gabeko Igerilekuak lanen obra zuzendaritza daramaten LKS Ingeniería, S. Coop.ko Javier de la Fuente Carazo arkitektoa eta Nerea Mujika Estensoro arkitekto teknikoek lanen lehen obra-egiaztagiria luzatu dute. Lehen obra egiaztagiriaren zenbatekoa HOGEITA HAMABOST MILA ETA LAUROGEITA HAMAIKA EURO eta HOGEITA BAT ZENTIMotakoa (35.091,21 €) da. Lan hauek Altuna y Uria, S.A. enpresa ari da burutzen.

Udal teknikariak obra-egiaztagiri hau aztertu eta bere oniritzia eman dio.

Honen aurrean, Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, Estali gabeko igerilekuen eraikuntza lanen lehen obra-egiaztagiria onartzea erabakitzen du.

VI.- 9.2 EREMUKO JABETZA KENTZE PROZESUAN AUZI ERREKURTSOAN PARTE HARTZEKO ERABAKIA.-

Administrazioarekiko Auzietako Donostiako 1 Zbk.dun Epaitegiak idatzia bidali zuen Udal honetara, Joakin Agirre Garin eta Maria Dolores Agirre Garinek Lazkaoko Udalak 2009ko martxoaren 12an hartutako akordioaren aurka errekurso kontentzioso-administratiboa tartejarri zutela jakinaraziz. Aipatu akordioan, estaligabeko igerilekuak eraikitzeko

...///...



...///...

okupatu beharreko ondasun eta eskubideen zerrenda behin-betikoz onartzen da eta prezazko aitorpena egiten da.

Honen aurrean, alkatetzak, 2009ko maiatzaren 27ko alkatetzaren ebazpen bidez zera ebatzi zuen:

1. Administrazioarekiko Auzietako Donostiako 1 Zbk.dun Epaitegira eskatutako espedientearen egiaztatutako kopia foliatua bidaltzea.
2. Espedientean interesatu direnak enplazatzea, 9 eguneko epean errekurtsioan demandatu bezala bertaratu ahal izateko.
3. Udala prozedimentuan bertaratzea, Jon Orue-Etxebarria Iturri abokatua izanik.

Hau honela, Udal Osoko Bilkurak erabaki hauek berrets ditzan proposatzen da.

Crespo zinegotziak (PSE-EE) esaten du behin kontentziosora joanik, gero epaia edozein dela ere, hitzarmenik ez eskeintzeko inondik inora ere.

Osoko Bilkurak, gaia aztertu ondoren, eta bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, alkatetzaren ebazpenean hartutako erabakietan berrestea erabakitzen du.

VII.- 3 H.J.A. EREMUKO (BEASAINGO 3 SEKTOREAREKIN MUGAK) AUZI ERREKURTSIOAN PARTE HARTZEKO ERABAKIAN BERRESTEA.-

Alkatetzak, 2009ko ekainaren 10ean ondorengo alkatetzaren ebazpena eman zuen:

"Beasaingo Udalaren Osoko Bilkurak 2008ko irailaren 11an hartutako akordioaren baitan, Alkatetza honek Beasaingo Planeamenduko Arau Subsidiarioetako 3. Sektoreko - UGARTEMENDI Plan Partzialaren aurrean aurkeztutako alegazioa ezestea eta berau behin-betikoz onartzea erabaki zuen.

Aipatu akordioa zuzenbideari ez zitzaiola lotzen kontsideratuz, Alkatetza honek aipatu akordioaren aurka Birjarpen Errekurtsioa tartejarri zuen, oraindik ebatzi ez den errekurtsioa.

Aipatu aurrekinen ondorioz, eta Administrazioarekiko Auzibideen Jurisdikzioko 46.1 artikuluan ezarritakoarekin bat, Toki-Araubidearen Oinarriak ezartzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 22.1.k) artikulua ematen dizkion eskurantzak erabiliz Alkatetza honek zera EBAZTEN DU:

LEHENA.- Euskal Herriko Justizi Auzitegi Nagusiaren aurrean administrazioarekiko auzi-errekurtsioa tartejartzea, Beasaingo Udaleko Osoko Bilkurak 2008ko irailaren 11an hartutako akordioaren aurrean jarritako birjarpen errekurtsioaren ustezko ezespenaren aurka. Aipatu akordioak Beasaingo Planeamenduko Arau Subsidiarioetako 3. Sektoreko - UGARTEMENDI Plan Partzialaren aurrean aurkeztutako alegazioa ezestu eta berau behin-betikoz onartzen zuen.

...///...

...///...

BIGARRENA.- Hurrengo batzarrean Osoko Bilkurari ebazpen honen berri ematea."

Hau honela, Udal Osoko Bilkurak erabaki hauek berrets ditzan proposatzen da.

Osoko Bilkurak, gaia aztertu ondoren, eta bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, alkatetzaren ebazpenean hartutako erabakietan berrestea erabakitzen du.

VIII.- EUSKAL PRESOEN INGURUKO 2 MOZIO.-

Euskal presoeng inguruko bi mozio aurkeztu dira Udaletxean eta Osoko Bilkura honetara ekarri dira beraiei buruz eztabaidatzeko.

Jendartetik Joseba Hernandezek esaten du beraiek mozioa sartzen duten bakoitzean besteek kontramozioa sartzen dutela automatikoki eta dinamika hau baino gehiago aurreraz eztabaidatzea eta kontsentsu batera iristen saiatzearen dinamika gehiago gustatuko litzaiekela. Badakitela, beharbada denbora arazoagatik izan litekela baino bestela behintzat gustatuko litzaiekela.

Alkateak erantzuten dio baietz denborarik ez dela egoten, gainera mozioari sarrera eman eta inor ez dela etorri hortaz hitzegitera eta bestalde bi mozioen artean iruditzen zaiola badaudela alde nabarmenak eta horiei buruz eztabaidatzeko aukera orain izango dutela.

Lehenengo mozioak, Igortz badiola Arratibelek aurkeztutakoak, eta beste 215 izenpe daramatzanak, honela dio:

- 1.- "Belen Gonzalez Peñalva euskal preso politiko lazkaotarra, etxetik 700 km.tara dagoen A Lamako espetxean aurkitzen delarik, bere eskubideak beteak izan daitezen bere Euskal Herriratzea eskatzen dugu.
- 2.- Frantzia eta Espainiak euskal presoek aplikatzen dieten politika penitentiarioa amaitu dadin eskatzen dugu, oinarritzko eskubideak urratzen dituelako. Sakabanaketari behin betirako amaiera ematea eskatzen dugu. Sakabanaketa sustatu dutenek, indargabetu dezaten eskatzen dugu.
- 3.- Gaixotasun larri eta sendaezinak dituzten presoak berehala eta baldintzarik gabe kaleratzea eskatzen dugu.
- 4.- Biziarteko espetxe zigorra indargabetu dadin eskatzen dugu:
 - Kondena beteta duten presoak berehala eta baldintzarik gabe kaleratuz
 - Kondizionalean dauden presoak ere berehala kaleratuz
 - Kaleratu diren presoek Euskal Herrian libre eta baldintzarik gabe bizitzeko eskubidea errespetatuz.
- 5.- Isolamendu eta bakartasunaren kontra EPPEk Euskal Herrian egoteko/biltzeko eskubidea dute. Dagozkien eskubideen jabe, Euskal Herriratuak izan daitezela eskatzen dugu.

...///...



...///...

Biziarteko zigorrik ez!
Heriotza zigorrik ez!
Euskal Presoak Euskal Herrira!
(dagozkien eskubideen jabe)

MOZIOAREN ARRAZONAMENDUA

Espainiak eta Frantziak Euskal Herriaren eskubideak errekonozitzeko bidea baztertu eta eskubide horiek murriztu eta ezabatzeko hautua berretsi dute azken garaioan. Finean, gatazka politikoa iraunarazi eta luzatzeko apostua egin dute.

Euskal Herriari salbuespen egoera iraunkorra inposatu izan zaio, deklaratu ala deklaratu gabea. Egun, demokrazia formalaren arauak hankaz gora ipini dituzte, "de facto" salbuespen egoeran sakonduz. Eguneroko politikagintzan bezala espetxetan ere bai.

Euskal Preso Politikoen kopurua azken 30 urteotako inoizko altuena da: 750 euskal herritar Frantzian eta Espainian preso.

Espetxe politika, joko politikoaren elementu gisara baliatzen jarraitzen dute. Interes politikoetara hertsiki lerratua dute, presoak Euskal Herritik isolatu nahi dituzte, suntsitzea helburu dute, etsipena eragin. Gatazka politikoan eragiteko baliatzen dute.

Sakabanaketa politika martxan jarri zutenetik 20 urte pasatu direnean, indarrean da oraindik. Kilometro kopuruaz harago etengabeko eskubideen murrizketa suposatzen dut sakabanaketak. Urruntzea, bakartasuna eta isolamendua. Oinarrizko eskubideen urraketa gauzatzeko inpunitatea. Presoei ezezik senide eta lagunei ere zuzenki eragiten die. 38 hildako preso eta senide artean.

Urrats berriak ezagutu ditugu:

- Biziarteko espetxe zigorra inposatu dute, izan perpetua Frantzian, izan 40 urte arteko zigor gorena Espainian. Doktrina berriak asmatu dituzte (Auzitegi Goren Espainola) kondena beteta duten presoei eta kondizionalean beharko luketen presoei askatasunerako eskubidea ukatzeko. Berriki, kaleratuak direnei Euskal Herrian libre bizitzeko eskubidea baldintzatu eta murriztu diete.
- Preso gaixo larriak heriotza zigorrera kondenatu dituzte."

Bigarrengo mozioak honela dio:

"Pakea eta normalizazio politikoa dira egungo momentuan, Euskal Gizarteak bere erabateko garapena eta ongizatea eraikitzeko gaitasuna behar dituen erronkak. Hau da, euskal hiritarrak, identitate sentimentu ezberdinez osatzen dugun euskal gizarteak, bere borondatean oinarrituko den errekonozimendu politikoan, erabakitzeko eskubidearen aitortzan, eta elkarbizitzarako pakean, eraiki nahi du bere etorkizuna.

Euskal presoan oinarrizko eskubideen urraketak, torturak, lege kanporaketak, adierazpen eskubideari erasoak, pertsona nahiz ondasunen aurkako biolentziazko jardunak, gure herriak hain beharrezko duen soluzioari oztopo egiten diote. Soluzioak baitu ba-

...///...

...///...

tetik oinarri, ezezkoa oinarriko eskubide ororen zapalketari; ezezkoa, bizitza, giza segurtasuna, adierazpen eskubidea, elkartze eskubidea e.a... zapaldu bide duen eraso orori; eta baiezkoa, eskubide horien guztien alde egiteari. Eta oinarri ere behar ditu, adostasun politikoaren bilaketara garamatzaten ekimen oro, gure herriak bizi duen gatazka politikoari irteera ematea helburu, herriari demokratikoki berezkoa zaion erabakitze eskubide horren errespetuzko jokabideen bideetatik.

Udal honek luzatuak dituen adierazpen guztiekin bat egin nahi dugu berriro ere; pertsona ororen giza eskubide guztien defentsarako konpromisoarekin bat egiten, eta ezein biolentzia eta estorsio jarrerei uko egiten.

Guzti honegatik, eta euskal presoak jasaten ari diren bere oinarritzko eskubideen urraketen aurrean, Eusko Legebiltzarrak, 2006ko urriaren 6an, euskal presoen eskubideen defentsarako konpromisoari buruz onartutakoa, Udalbatza honi berretsi dezala proposatzen diogu, eta zeinen arabera:

- 1) Presoak euren gizarte eta familia-ingurunetik gertuagoko kartzelan egon behar dute.
- 2) Espainiako espetxe erakundeei euskal preso guztien oinarritzko eskubideak errespetatzea ditzala.
- 3) Eritasun larriak jasaten dituzten presoek berehala 92. artikulua aplikatzea eskatzen da.
- 4) Legearen aplikazio positiboa egin dezala, eta, hala, zigorraren parterik handiena bete duten eta legearen arabera baldintzapean aske egon daitezken presoak, askatuak izan daitezela.
- 5) Espainiako Gobernuari, ahalik eta lasterren eskualda diezazkiola EAERI espetxeei buruzko eskumenak eskatzen zaio.
- 6) Aldarrikatzen du giza eskubide guztiak inolako salbuespenik gabe defendatzeko konpromisoa, baita herritar guztiak, preso daudenak ere bai, eskubideez eta askatasunez, politikan parte hartzeko eskubidea barne, baliatzea bermatu beharra ere."

Alkateak esaten du beste mozioko puntuekin ados egongo liratekeen bezela ezin dela ekidin giza eskubide ororekiko defentsari buruzko aipamena eta hori bigarrenengo mozioan argi eta garbi jartzen dela.

Igortz Badiolak, jendartetik, esaten du beraiek ez badute ezer aurkezten beste aldetik ez dela behin ere ezer bultzatzen eta beraiek zerbait aurkezten dutenean beti kontramozioa aurkezten dutela.

Eztabaidatuak izan ondoren bi mozioak bozketara jartzen dira. Lehenengo mozioaren aurrean, osoko Bilkurak, aldeko boturik gabe, aurkako 5 botu (EAJ) eta 2 abstentzioz (PSE-EE eta Lurdes Garmendia) mozioari ezetza ematen dio.

Bigarren mozioaren aurrean, Osoko Bilkurak, aldeko 6 botu (EAJ), aurkako boturik gabe eta abstentzio batez (PSE-EE) mozioa onartu egiten du.

...///...



...///...

IX.- UDAL LEGEARI BURUZKO MOZIOA.-

Mozioak honela dio:

"Egungo krisi ekonomikoaren ondorio zuzenak udaletxeetan nabaritzen ari dira bereziki. Egungo krisi egoera eta foru zein udal ogasunen diru-bilketaren jaitsiera direla-eta, Udal Lege bat adostea inoiz baino premiazkoagoa da orain Udalen eskuduntzen esparrua argitzeko eta, batik bat, Udalek herritarrei eskaintzen dizkieten zerbitzuen finantziazio egonkorra bermatzeko. Are gehiago egoera honetan, krisiaren ondorioz udal arloetan gizarte-zerbitzuen eta prestakuntzen eskaria gero eta handiago denean, eskuduntzaren titularra zein den alde batera utzita, herritarrek udaletara, hurbilen dituzten erakundeetara, alegia, jotzen dutelako.

Hau guztia dela eta, Lazkaoko Udalbatzarrak honako akordio hau har dezala proposatzen dugu:

- 1.- Udal honek gogora ekartzen du Euskal Autonomia Erkidegoko sistema instituzionala euskal herritarren ordezkaritza duten erakundeek osatzen dutela eta hauek hiru mailatan antolatzen direla: erakunde komunak, foru organoak eta udal instituzioak.
- 2.- Udal honek eskatzen du maila instituzional bakoitzari dagozkion eskuduntzen banaketa, jarduera eta finantziazio-bideak argi daitezela.
- 3.- Udal honek aldarrikatzen du udalerriek Herri Dirubideen Euskal Kontseiluan egon behar dutela, Kontzertu Ekonomikoaren kudeaketaren bitartez lortzen den diru publikoa hiru maila instituzionalen artean banatzeko hartzen diren erabakietan parte hartzeko aukera izan dezaten.
- 4.- Udal honek Udal Lege baten beharra aldarrikatzen du, udalak euskal sare instituzionalaren barruan behin-betiko eta legez egon daitezela ahalbidetzeko.
- 5.- Udal honek Eusko Jurlaritzari premiazko eskea egiten dio aurreko puntuetan jasotako eskariei erantzuna emango dien, bereziki, EUDEL-Euskadiko Udalen Elkartearen aldeko akordioa duen eta, ahalik eta erakunde eta babes politiko handiena eragingo duen, Udal Lege Proiektu bat egin eta onar dezan."

Jendartetik, eta aurrez hitzegiteko alkatearen baimenarekin, Igortz Badiolak esaten du ez daudela ados mozioak diogenarekin eta puntuz puntu kritikatzeko mozioak dioena. Hasteko esaten du krisiaren ondorio zuzenak udaletxetan baino gehiago herritarrengan nabaritzen direla esango lukeela; esaten du baita ere udal zein foru-ogasunen diru-bilketaren jaitsiera baldin badago ardura politikoa ere egongo dela hor; esaten du baita ere "euskal herritarren ordezkaritza duten erakundeek osatzen dute" esaten dela mozioan eta beraz dirudienez beraiek ez direla euskal herritarrak; esaten du baita ere mozioaren onarpenerako jartzen den bigarren puntuan, finantziazio-bideak argi daitezela eskatzen denean, bakarrik alor ekonomikoari buruz ari dela eta ez dela diru iturri ekonomiko horren erabileraren nondik norakoari buruz ezer esaten; hirugarren puntuan ere gauza bera gertatzen dela esaten du, eta galdetzen du ea zer lotura daukan banaketa instituzionalak banaketa ekonomikoarekin; baita ere esaten du euskal sare instituzionala aipatzen denean

...///...

...///...

euskal instituzio zatikatzaille batzutat ari den ala instituzio nazionaletaz. Bukatzen du esanez guzti honen aurrean beraien jarrera mozioaren aurkako bezala azaldu beharko luketela baina errealitatea dena dela, beharra udalena baino gehiago herritarrena dela, eta beraz abstentzioaren aldeko gisa aldarrikatzen dutela beraien jarrera.

Alkateak Igortzek egindako kritikei erantzuten die esanez mozio honek helburu zehatz bat daukala eta hori udalak Euskal Finantzen Kontseiluan egotea dela.

Guzti honen ondoren mozioa bozketan jartzen da eta Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin mozioa onartzea erabakitzen du.

X.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, iluntzeko zortziak hogeitabost gutxi direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

